

Gizarte zibila Euskal Herrian

(Civil society in the Basque Country)

Lizarralde, Amaia
Univ. del País Vasco
Fac. Derecho
Dpto. Economía Aplicada I
Manuel de Lardizabal, 2
20018 Donostia

Euskal gizarte zibilaren osasunari dagokionez, aski ezkorra da nire diagnostikoa. Sendabidea, aldiz, eskura samar daukagula koan nago. Gizarte-kontzientzia pizteko eskola ezin hobea da euskal gatazka. Hala ere, uka ezina da etsipena gero eta hedatuago dagoela. Kontrajarriak diruditen bi gauza horiek, ez ote dira kausa bat beraren ondorio? Gatazka politikoa dela-eta, gazte gaztetandik hasten gara euskaldunok maila pribatutik haratagoko arazoez ardurutzen. Baina, baita ere, biolentzia politikoak sekulako tentsioak sortarazten ditu euskal gizarte zibila osatzen duten erakunde, talde eta pertsonen artean. Gizarte zibila indartu nahi bada, ezinbestekoa da mugimendu guztiak balio komun argi eta garbi batzuen inguruan artikulatzea. Mugimendu sozialean ardatz izango diren balio horiek, beti berdín aplikatzekoak behar dute izan, eta ez aldiari aldiko gaiaren edo subjektuaren arabera.

Giltza-Hitzak: Gizarte arazoen kontzientzia. Etsipena. Gatazka politikoa. Biolentzia politikoa. Balioak. Artikulatzea. Indartu.

Con respecto al estado de salud de la sociedad civil vasca, mi diagnóstico es bastante pesimista. Sin embargo, pienso que el remedio lo tenemos en gran medida a nuestro alcance. El conflicto vasco es una escuela inmejorable para despertar la conciencia. Con todo, resulta innegable que el desaliento está cada vez más más extendido. ¿No serán estas dos cuestiones, que parecen contrapuestas, consecuencia de una misma causa? Los vascos, como consecuencia del conflicto político, empezamos desde muy jóvenes a preocuparnos de cuestiones que van más allá del terreno de lo privado. Pero, de igual forma, la violencia política hace surgir enormes tensiones entre las organizaciones, grupos y personas que conforman la sociedad civil vasca. Si queremos fortalecer la sociedad civil, resulta imprescindible articularla inequívocamente en torno a unos valores comunes. Los valores que han de ser eje de los movimientos sociales, han de aplicarse siempre por igual, y no según el tema o sujeto del momento.

Palabras Clave: Conciencia de los problemas sociales. Desaliento. Conflicto político. Violencia política. Valores. Articulación. Reforzar.

En ce qui concerne l'état de santé de la société civile basque, mon diagnostic est assez pessimiste. Pourtant, je pense que le remède est à notre portée. Le conflit basque est une école exceptionnelle pour réveiller la conscience. Il est indéniable que le découragement s'étend de plus en plus. Ces deux questions, qui semblent opposées, ne sont-elles pas la conséquence d'une même cause? Nous les basques, en conséquence du conflit politique, commençons très jeunes à nous préoccuper de questions qui vont au-delà du terrain privé. Mais, de la même façon, la violence politique fait surgir d'énormes tensions entre les organisations, les groupes et les personnes qui forment la société civile basque. Si nous voulons renforcer la société civile, il est indispensable de l'élaborer manifestement autour de valeurs communes. Les valeurs qui doivent être l'axe des mouvements sociaux, doivent toujours être appliquées équitablement, et selon le thème ou le sujet du moment.

Mots Clés: Conscience des problèmes sociaux. Découragement. Conflit politique. Violence politique. Valeurs. Elaboration. Renforcer.

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 563-565. - ISBN: 84-8419-949-5.

Gizarte zibila dugu hemen aztergai, baina kontzeptu hori, gizarte zibilarena, alegia, oso gutxi erabiltzen da oraindik, salbu eta giro eta inguru jakin batzuetan. Erabiltzen denean, berriz, nahiko modu lauso eta zehazkabearen erabili ohi da, instituzioetatik kanpo diharduten gizarte-mugimenduak orokorki izendatzeko edo.

Ez naiz gizarte zibilaren definizioa biribiltzen tematuko, baina, aurrera egingo badugu, ezinbestekoa iruditzen zait aztergaia zehatz-mehatz mugatzea, "euskal gizarte zibila" diogunean zertaz ari garen eta zertaz ari ez garen argitze aldera.

Gizarte hau aldatu eta gizarte zuzenago eta solidarioago bat lortzea helburu harturik, horretaz arduratzen, horretarako lan egiten eta hori lortzearen diharduten giza talde, kolektibo, elkarte eta gainerako mugimendu egituratuaren multzoari esan-go diogu hemen "gizarte zibila". Gizarte zibila, ordea, ez da horretan agortzen: helburu hori bera lortzearen lan egiteko prest leudekeen gizabanakok ere gizarte zibilaren partaide dira. Jende asko dago gizartea aldatzearen alde; horietako askok eta askok, ordea, ez dute aldaketa hori gauzatzeko ekintzetan parte hartzen, dela gogorik ez dutelako, dela ekinbide egokirik ikusten ez dutelako. Nola nahi ere, eta orain artekoa laburbilduz, esan dezagun gizarte hau aldatzearen alde diharduten giza mugimenduek eta aldaketaren alde dauden giza banakoek osatzen dutela gizarte zibila.

Euskal gizarte zibilaren osasunari dagokionez, aski ezkorra da nire diagnostikoa. Sendabidea, aldiz, eskura samar daukagulakoan nago.

Desmobilizatua dago, nire ustez, euskal gizartea, eta desmobilizazio hori are nabarmenagoa da euskal gazterien kasuan. Sarri esan izan da bizi-bizia dela euskal gizartea auzo-gizarteen aldean, eta euskal gatazka jo ohi da gure gizartearen bizitasun ezohiko horren eragile nagusitzat. Izan ere, gatazka dela-eta, gazte-gaztetandik hasten gara euskaldunok maila pribatutik haratagoko arazoez arduratzen. Gatazka politikoarekin topo ez egitea ia ezinezko denez, txiki-txikitandik ohitzen da euskal gaztea gatazkei aurre egiten eta konponbideak bilatzen.

Are gehiago, gazteengan gizarte-kontzientzia pizteko eskola ezin hobea da euskal gatazta. Gatazka horretan hezik, gainerako gatazkekiko kontzientzia hartuko luke gazteak, eta, jakina, hala kontzientziaturik, aise egingo luke hurrengo urratsa ere, gizarte-mugimenduren baten partaide izateko urratsa, alegia. Horrexegatik omen du Euskal Herriak hainbeste gizarte-mugimendu; horrexegatik omen da gure gizarte zibila hain trinko eta indartsu.

Baliteke hori horrela izatea, alde behintzat. Hala ere, uka ezina da frustrazioa eta etsipena ere gero eta hedatuago daudela, eta, ondorioz, baita desmobilizazioa ere, bereziki euskal gazteen artean. Eta, jakina, gazteen artean etsipena nagusitzen bada, nondik aterako du gizarte honek etorkizune-

ko erronkei aurre egiteko kemena? Arazoa larria da. Ez-ikusiarrena egin genezake, baina arazoa ukatzea ez da arazoa konpontzeko biderik egokiena. Begira diezaiogun, bada, aurrez aurre arazoari.

Egia baldin bada txiki-txikitandik hartzen dutela hemen gazte gehienek gizarte arazoaren kontzientzia, egia da, orobat, aski gazterik egiten diotela muzin bide horri, gazterik kontzientziatu eta gazterik etsi eta desmobilizatzen dela hemen jendea.

Honako galdera hau egin beharko genioke, nire ustez, geure buruari: ea kontrajarriak diruditen bi gauza horiek –gizarte-kontzientzia bizia eta desmobilizazioa– ez ote diren kausa bat beraren ondorio. Niri, neurri batean hala direla iruditzen zait.

Esan dugunez, gaur egun gizarte mugimenduetan ekinean diharduten asko eta asko etxean leudeke, seguruenik, gatazka politikorik ez balego. Egia da hori. Baina egia da, baita ere, biolentzia politikoak sekulako tentsioak sortarazten dituela euskal gizarte zibila osatzen duten erakunde, talde eta pertsonen artean. Biolentzia borroka bidetzat onartzen ez duen gazteari ez zaio gaur egun aukera handirik geratzen bere helburuen aldeko borrokan segitzeko.

Bestalde, gatazka politikoak ia dena kutsatzen baitu gurean, zaila da gatazka horretan hasi eta hezitako gazteak bestelako borroka eta errebindikaziorik aintzat hartzea. Ondorioz, euskal gizarte zibila osatzen duten taldeen arteko artikulazioa hutsaren hurrengo da, talde bakoitzak bereari soilik egiten baitio men.

Euskal gizartea desmobilizatuta dagoela diodan, gizarte mugimenduren batean edo bestean jardunean diharduten pertsona kopurua dut, batez ere, gogoan, gero eta txikiago baita kopuru hori. Talde kopurua, aldiz, gero eta handiagoa da, gizarteko eremu bakoitzeko talde bat dagoela esan liteke-eta. Hor daude, besteak beste, Euskal Herriaren eskubideen aldeko taldeak, antimilitaristak, ekologistak, feministak, eta beste hainbat eta hainbat, jardun eremu zehatz batera mugatzen ez diren taldeak ahantzi gabe.

Hori guztia gutxi balitz, beste gizarteetan aipatu ohi diren arrazoi berberak ere aipa litezke, noski, gure gizartean nabari den desmobilizazioa azaltzen hasita. Lehenik eta behin, alderdi politikoen eta sindikatuen jokabidea aipatu behar genuke, gizarte-mugimenduetan sortzen diren mezuak eta mugimenduetan nabarmentzen diren pertsonak berentzeko joera baitute bai alderdiek bai sindikatuak. Horren ondorioa jakina da: berezko mugimendu zena instituzionalizatu egiten da. Horrez gain, hor dago neoliberalismoaren eredu sozio-ekonomikoa ere, lehiakortasuna eta kontsumismoa beste baliorik aintzat hartzen ez duena, indibidualismoa hauspotuz. Egia esan, ez da desmobilizatorako arrazoinik falta.

Joera horri aurre egin eta gizarte zibila indartu nahi bada, berreskuratu beharra dago lehenbaile-

hen gizarte mugimenduek behiala zuten prestigioa. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da mugimendu guztiak printzipio eta balio komun argi eta garbi batzuen inguruan artikulatzea, bestelako interferentziarik gabe, interferentziok desitxuratu baino ez baitute egiten mugimendu sozialen izatera, eta horrek, azken batean, prestigio galtzea eta etsipena besterik ez dakartza. Mugimendu sozialen ardatz izango diren printzipio eta balio horiek, hori bai, beti berdin aplikatzekoak behar dute izan, eta ez aldian aldiko gaiaren edo subjektuaren arabera.

Nik ez dut beste biderik ikusten jendea injustizien aurka atzera berriz mobiliza dadin. Ez dut uste hain zaila denik ere: mugimendu sozialek, horrela zaharberiturik, prestigioa berreskuratuko dute, gero eta jende gehiago erakarritik; jende berriaren parte hartzeak, berriz, indarberritu eta sendotu egingo ditu gizarte mugimenduak, gizarte zibilaren ahalmenak abian jarritik. Inondik sortzekotan, hortik sortuko da pixkanaka-pixkanaka gizartearen gehiengo zabal batek bere egiteko moduko projektua, elkartasuna eta justizia lortzeko bidean jarriko gintuzkeen projektua.